

257. ZENBAKIA-AZPEITIKO HERRI ALDIZKARIA-2023KO OTSAILA

UZTARRA

ZENBAKI HONEKIN BATERA
+ GUKA ALDIZKARIA

GORKA KARAPETO

ESKALADA HELDULEKU



erreforma integralak

dica



URRATEGI
INTERIORISMO
banoa diseinua

www.urrategiinteriorismo.com
Arraquelte 27 Arretxe 9
20600 Eibar 20730 Azpeitia

MILAR LARRAMENDI

Etzetresna elektrikoak



dyson

Miele

MILAR LARRAMENDIIN AURKI DITZAKEZU
DYSON ETA **MIELE** PRODUKTUAK

www.milar.es webgunean ere aukera zabala

Julio Urkixo, 16 • AZKOITIA • 943-85 18 97 • www.milar.es

Lora zaitez!

Kimubat Gardenen zure lorategia, baratzea, balkoia eta etxea apaintzeko orotariko elementuak topatuko dituzu.



Kimubat Taldea

Urrestila bidea 2/g - Azpetia

943 15 00 85

kimubat@kimubat.es

www.kimubat.es




KIMUBAT
— GARDEN



UZTARRIA 257

2023-OTSAILA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
NEREA URANGA

Aurkibidea

- | | | | |
|----|--|----|--|
| 5 | Iritzia Maialen Etxaniz, <i>Tokikoak.</i> | 30 | Plazan bazan |
| 6 | Hantxe bertan Maite Zubizarreta,
Eslovakian bizi den herritarra. | 33 | Iritzia Imanol Amiano,
<i>Bakoitzak bere zertarakoak.</i> |
| 8 | Nire leihotik Haizea Salegi,
<i>Ganbaran, zer?</i> | 34 | Atzera begira Santa eskea. |
| 10 | Iritziak Luis Gurrutxaga,
<i>Kanpandorreetako erlojuak;</i>
<i>Txetxu Urbietta, F5.</i> | 38 | Iritzia Ione Gurrutxaga, <i>Hangoak,</i>
<i>hemengoak.</i> |
| 12 | Erreportajea Minbiziaren Aurka
Gipuzkoan Elkartearen egoitza. | 40 | Iritzi grafikoa Itziar Aranguren. |
| 18 | Elkarrizketa Gorka Karapeto
eskalatzailea. | 42 | Klik! Parrokiako Bakardadearen
kapera. |
| 25 | Lehiaketa | 46 | Iritziak Miel A. Elustondo,
<i>Hogei urte (eta beti Habana);</i>
<i>Sara Amenabar, Ezagutu zaitetz.</i> |
| 26 | Erretratua Xabier Bidezabal
dantzaria. | | |

UZTARRIA

TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-15 03 58
uztarria@uztarria.eus
www.uztarria.eus

Zuzendaria:

Julene Frantzesena
Erredaktoreburua:
Ihintza Elustondo
Erredaktore taldea:
Mailo Oiarzabal
Nerea Uranga
Maialen Etxaniz

Ihintza Elustondo

Diseinu arduraduna
Iñaki Martínez Albizu
Publizitate arduraduna
Angel Sarasua
Zenbaki honetako
kolaboratzaileak:
Haizea Salegi

Luis Gurrutxaga
Txetxu Urbietta
Itziar Aranguren
Olatz Alkorta
Imanol Amiano
Ione Gurrutxaga
Miel A. Elustondo
Sara Amenabar
Leire Ibar

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-860/2000
ISSN: 1576-7337
Tirada: 2.500 ale



PUBLIZITATEA



ostadar optika
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

EGUZKI
belardenda
dietetika
kosmetika naturala



Kale Nagusia, 67 943-60 34 47 AZKOITIA
Urtiarie 9 bis 943-15 00 23 AZPEITIA

IRENE ALTUNA
DORADENDIA

Lolola-Bide, 26 Tel. 943-81 51 87
www.ikunadandia.com

AZKOITIA

ERLOJU
KONPONKETAK

Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

KIRURI



JATETXE

Lolola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA

Tlfnoa.: 943 81 50 08
Faxa.: 943 15 03 62

Luba
ahelularitza

Analakurita
luzera
denekala
sontakia

Gestioi lanak
Finkei administratzaio
Gestioi inbabilarioi

Tfno.: 943 157 325 Faxa.: 943 157 275
Superan kalera, 49-4. loka. alonkalekalek.net

**JARRI HEMEN
ZURE IRAGARKIA!**

Alertza Autoak
Behar duzun konfiantzazko talerari!

Marka guztietako
ibilgailuen konponketak

943-81 19 15
AZPEITIA
alertza@alertzaautoak.com



CITROËN EuroRater EUROTALLER MULTIMARKA ZERBITZUA

adi ARTE ETA
DISEINU
ESKOLA
EUKARTEA

● **Marraskia eta eskulanak**
(haurrak) 17:30 - 19:00

● **Pintura** 16:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30

● **Talla** 18:30 - 20:00

Jose Artetxe kalea, 3
943 81 20 08
www.adesaino@gmail.com
Matrikula urte osoan zabalik

IKA argi lanak s.l.

Instalakuntza Elektrikoak

Urrut.: 618 96 49 95 / Jan.: 649 12 02 71
ikasargilanak@gmail.com www.ikasistemak.com
20730 AZPEITIA

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

**URBISTONDO
MARGOAK**

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

Tokikoak



MAIALEN ETXANIZ

Urtarrilean zazpi urte bete ziren Uztarrian lanean hasi nintzenetik. Gauzak asko aldatu dira ordutik. Perez Arregi plazako bulegoan egiten genuen lan orduan. Leku hezea zen, hotza. Alde batean Uztarriakoak geunden, eta beste aldean, izatez bi metrora baina irudipenez mila kilometrotara, Hitzakoak zeuden. Haien ondoan zegoen erredakzioko komuna; handik sartzen zen janari usainak gogorarazten zigun ostegunetan pintxo-potea egiten zela. Noizbehinka, Kantujirakoen entseguetako piezak entzuten genituen, karnabalak edo uda sasoia ate joka zirenaren seinale. Postaria etortzen zen egunero, eta señora bat edo beste ere bai. Eskuz jartzen genien pegatina aldizkarietako bazkideen etxeetara irits zitezen. Denborarekin, Hitzakoak eta Uztarriakoak batera hasi ginen lanean, eta bulegoko berrantolaketa egin genuen, guztiok elkarrekin egoteko eta hobeto lan egiteko. Finean, gauzak hobetzeko asmoz. Maitasunez gogoratzen ditut hasiera haiek, egiatan.

Unibertsitatean Tokiko Hedabideak izeneko irakasgaia geneukan. Askotariko auziak lantzen ziren: Euskal Herriko lehen herri hedabideen eta herri irratien sorrera, horiek euskararen normalizazioan egindako ekarpena, tokiko hedabideetako kazetaritzaren ezaugarriak, herri hedabideen zailtasunak eta onurak... Gaur egun ez dakit irakasgaia eskaintzen duten, baina horrela izatekotan, edukiaren mamia aldatuko zela pentsatzen dut. Azken hamar urteotan ikaragarri aldatu dira gauzak arlo horretan. Sare sozialen mundu zabalak eta irudiaren eta ikus-entzunezkoen garai berriek eragin zuzena izan dute informazioa kontsumitzeko joeretan, baita edukiak sortzeko moduetan ere. Aukera berriak ireki dira, eta aukera berri horiek jopuntuan jarri dituzte orain arteko informazio bideak. Baliabide teknikoak dituen edonork informa dezake, nolabait, eta horrek sortu du lehia testuinguru berri bat.

Tokiko hedabideak indartzea eta eraberritzea ezinbestekoa izango da iraungo badute, baina aldaketa horiek nola eta zertarako egiten diren jakitea ere garrantzitsua da. Nire iritziz, arriskutsua litzateke tokiko informazioa ekoizpen lehiakortasun ikuspegitik ulertzea eta lantzea. Tokiko informazioa gertukoa da, bere onean eta txarrean. Tokiko informazioak samurtasunez nahiz zorrotasunez aritzea eskatzen du, eta horrek bere denbora eta lekua. Tokiko informazioak ezaugarri eta bereizgarri propioak ditu, eta beste kontu bat da garaira nola egokitzen den. Tokiko hedabideen edo informazio generoko lanen ekoizpena eta kontsumoa merkantzia gisa tratatzea arriskutsua da.

Perez Arregiko eraikina berrituko dute eta modernoago jarri, baina niretzako dagoeneko ez da lehen zena. ■■■

**TOKIKO INFORMAZIOAK
SAMURTASUNEZ NAHIZ
ZORROZTASUNEZ
ARITZEA ESKATZEN DU**

Maite Zubizarreta: "Lagunekin zurito bat hartzeak ematen duena falta zait Eslovakian"

TESTUA: **IHINTZA ELUSTONDO**

ARGAZKIA: **UTZITAKOA**

Duela hilabete batzuetatik, Eslovakian bizi da Maite Zubizarreta (Azpeitia, 1995). Bilboko ingeniari enpresa batean egiten du lan, eta enpresa horrek munduko hainbat lekutan ditu bulegoak, tartean, Eslovakian. Hasieran, bilerak batzuetara joaten hasi zen hara, baina gero, hantxe gelditzeko aukera eskaini zioten. Baiezkua eman zuen: "Ez nuen zalantzarik egin. Izan ere, ikasteko sekulako aukera da".

Eslovakia ez da jende askok bidaiatzeko aukeratu ohi duen lekua...

Ez. Uste dut lan aukeragatik izan ez balitz sekula ez nukeela herrialdea zapalduko. Lanean ari naizena bezalako ingeniari proiektuak ezerezaren erdian gauzatu ohi dituzte normalean, eta guñe horietan ez da erraza izaten norberak bere bizimodua egitea. Ni bizi naizen lekua, Kosice, aldiz, hiri handia da, Eslovakiako bigarren handiena; 240.000 biztanle inguru ditu. Gainera, ez dago Euskal Herriatik hain hurrin. Arrazoi horiengatik iruditzen zitzaidan leku aproposa.

Nolako lekua da bizitzeko?

Aukera aldetik, denetarik dago, edozein hiritan bezala, baina giroari dagokionez, oso lasaia da.

Zer-nolako da zure egunerokoa Kosicen?

Astelehenetik ostiralera egiten dut lan, bulegoko ordutegian. Lana amaitzean, zenbait egunetan, gimnasia joaten naiz. Ostiraletan, agian, lankideekin afaltzen dut. Gainera, Norvegiako lagun batzuk-eta egin ditut, eta batzuetan haiekin ere egiten ditut planak: mendira-eta joaten gara. Eta etxean egiten ez nituenak ere egiten ditut; igande goizetan etxea garbitu, arratsaldeetan aste osorako otorduak prestatu... Errutina lasaia daukat.

Lau astez Eslovakian lan egin ostean, aste bate handik kanpo igarotzeko aukera ematen dizu enpresak. Aste horretan, Azpeitira itzultzen zara, ala bidaiatzeko aprobetxatzen duzu?

Azpeitira itzultzen naiz. Bidaiatzeko aprobetxatu izan ditut asteburuak: Budapestera joan naiz,

Poloniara ere bai... Viena eta Praga bisitatzeko gogoak ere badut, gertu gelditzen zaizkidalako. Baina libre eman ohi didaten aste horretan asko eskertzen dut etxera bueltatzeko. Lagunekin eta familiarekin egon, parranda pixka bat egin... Primeran etortzen zait dosi hori.

Eslovakiako eta Euskal Herriko bizimoduak oso ezberdinak al dira?

Bai, baina Eslovakia ere Europan dagoenez, kultura talka handirik ez dut nabaritu. Hori bai, Azpeitian daukagun giroa ez dago inolaz ere Eslovakian; neguan ez dago kale bizitzarik.

Hotza egiten al du?

Sekulakoa. Orain sekulako hotza ari da egiten. Gainera, 15:00etan iluntzen du, eta kalean ez da inor egoten. Eslovakiako jendea Euskal Herrikoa baino hotzago iruditzen zait.

Leku hotzetan, jendea ere hotzago?

Bai, sentipen hori izan dut.

Zeren falta sumatzen duzu Azpeititik?

Kale giroarena; horrek bizia ematen dit. Batez ere, lagun hutsunea sumatzen dut. Arratsalde batean lagunekin Korralen eseri eta zurito bat hartzeak ematen dizuna... Hori falta zait Eslovakian, eta familia ere bai.

Bizitza guztia eman duzu saskibaloian. Noiz eta zergatik utzi zenuen?

Duela bi urte inguru. Azken urteetan arrastaka ari nintzen. Hiru lesio larri izan nituen; lotailu gurutzatua hautsi nuen hiru aldiz 16 urtetik 20ra artean. Orditutik aurrera, gero eta gehiago sufritzen nuen mentalki, eta lanarekin ere ez nintzen iristen lehengo konpromiso mailara. Orduan, pentsatu nuen: "Zertan ari naiz?". Egia esan, laga nuenean sekulako liberazioa sentitu nuen.

Bizitzako etapak, ezta?

Hori da. Pena da lagunartean genuen giroa galtzea, niri asko eman baitit saskibaloiak. Baina momentu hartan behar nuen uztea.

Gabonetan egin duzu azken bidaiak Azpeitira. Noizko hurrengo hegazkina?

Karnabaletan itzuliko naiz berriro. Dena ondo pentsatuta daukat [barreak]. ■



Ganbaran, zer?



ARGAZKIA ETA TESTUA: **HAIZEA SALEGI**

Aurretik bat, lehenengoa.
Atzetik besteak,
lehenengoaren ondorengoak.
Norbaiten edo zerbaiten atzetik
guztiak,
nora eta zertarako jakin
beharrik gabeak.

Soilik, doaz.
Itzuli ere egingo dira,
norbaiten edo zerbaiten
aurretik guztiak,
nora eta zertarako jada jakinda,
ordea.

Joan aurretik, ez dakigu zer
aurkituko dugun.
Halakoetan, soilik bagoaz.
Baina bagoaz, aurkituko
duguna ezagutzeko irrikitan.
Itzuleran, ezagututakoa
dakarkigu bueltan,
gauzarik txikiena izanda ere,
bizitza osoan ganbaran gordea
geldituko zaiguna.

Ganbara, hor bai bizipen pila
bat gordeak.
Batzuk atera nahi, baina
pisutsuegiak.
Beste batzuk utzi nahi,
arinegiak,
eta haizeak eraman. ■■■







Kanpandorreetako erlojuak

Denbora neurtzeko lehen saiakerak Lurraren, ilargiaren, eguzkiaren eta izarren mugimenduetan oinarritu ziren, hasieran pentsatu izan baitzen Lurra geldirik zegoela eta besteak mugitzen zirela haren inguruan. Eguzkiaren izpietan oinarrituz, egiptoarrak izan omen ziren lehen neurgailua asmatu zutenak, k. a. 1.000 urte: eguzki erlojua. Geroztik, zibilizazioak aurrera egin duen heinean, modu eta tramankulu desberdinez baliatu da gizakia denbora neurtzeko.

Denboran salto eginez, etor gaitezen gurera, zehazki inguruko kanpandorreetako erlojuen historia ezagutzera. Kontaketa xume honetan, ezinbestekoa dugu erloju egilea izan den familia baten historia printzak ezagutzea: Yeregi erlojugileen sagarena. Bost belaunaldi luzetan ekoizitako haien erloju askok oraindik zintzo

demonio diraute lana betez; alegia, orduak markatuz. Jose Frantzisko Yeregi Zabaleta 1760an jaio zen Leitzan, eta 1834ean zendu; hura izan zen yeregitarren lehen ordularigilea. Ahotza izanez, zurezko erlojua egin eta Iruñeko azoka batean aurkeztu zuen. Erlojuak ordu osoak eta erdiak jotzen omen zituen. Harrera ona izan eta bultzada jaso zuenez, metalezkoak egin zitzaizkion, gizonak Arruizko suteagian bi urtez ikasi zuen ofizioa, eta gai-gai izan zen Beteluko elizarako erlojua egiteko. Jose Frantziskoren anaiek, semeek, ilobek, bilobek... eman zioten jarraipena erlojugintzari belaunaldiz belaunaldi. Gutxienez, badira zortzi yeregitar gizaldian zehar erlojuak ekoizten aritu direnak maisuki. Benito Yeregi Goldaracena (1843-1912), J. Frantziskoren iloba, nahi nuke azpimarratu. Izan ere, hark

egindako edo muntatutako erlojuak ditugu gure bailarako auzoetako kanpandorreetan. Betelun jaioa, oso iaioa errementari lanetan, dirudienez, erbesteratua izan zen Usurbilgo Aginaga auzora, txanpon diruak faltsutzeagatik. Entzuna dut, baita ere, 'gona' kontuak medio alde egin zuela Aginagako errementari alabarekin; Martina Manterolarekin ezkondu zen eta hamahiru seme-alaba izan zituzten. Topatutako bere erloju zaharrena Astigarragako da, 1878koa, gaur egun gelditua. Esan genezake gure inguruko elizetako erlojugile aitzindaria dela Benito. Errementari-orduragile gisa hark gauzatutako 80 ordulari zenbatu dituzte denera. Batzuk berak egindakoak dira, beste batzuk Frantziatik ekarri eta ondoren berak muntatutakoak, eta beste batzuei berak gehitzen zizkien hainbat pieza. Artista hutsa. Artisau

HAUXE BAI JENEROA!



iaioa izateaz aparte, saiatzen zen saltzaile abila izaten ere. Azpeitiko artxiboetan topatu da propaganda orria, garairako bitxia eta erakargarria zena, zeinetan erlojugintzan zuen ospea islatzen baitzen. Era berean, erlojuen mantenuak eta zaintzak kezkutzen zuen. Horren harira, Nuarbeko elizako erlojua –1895ekoa– kokatua dagoen gunearen ondoan, hark idatzitako hainbat aholku edo arau irakur daitezke, tramankuluaren funtzionamenduak ez dezan izan okerrik. Adibidez, ordua atzeratuz gero, hori zuzentzeko zer urrats egin behar diren azaltzen du.

Baina kontu horiek denak nekez jakingo genituen Yeregi elkarteak izango ez balitz. Xabier Alvarez Yeregi, Benitoren birbilobak, elkartearen sortzaile, sustatzaile eta gaur egun buru denak, garbi dauka zein den

zeregina: "Yeregitarrek eta beste egileek egindako erlojuak eta bestelako makinak ekoiztean sortutako ondare historikoa errekuiperatzea, eta ondoren, gizarteratzea". Horren adibide garbia da duela gutxi Azpeitiko lehengo Miserikordiako eraikuntzan zegoen erlojuarekin egindakoa: jasota zeuden piezak txukundu, erlojua osatu, eta garrantzitsua... martxan jarri. Udalaren eskuetan dago orain, non kokatu jendeak bisita dezan.

Xabierrek ondo dioen bezala, "kanpandorreko ordularia ez da ezer kanpainakada gabe". Duela gutxira arte elizako kanpaikadek auzotarren eguneroko zereginetan izan duten eragina zenbaterainokoa den pentsaezina da. Mereziko luke horri buruzko historia kontatzea. Agian, beste batean... ■

HAN ETA HEMEN



TXETXU URBIETA

F5

Adin fisikoa eta adin mentala. Urbietak, noski, nola ez, badau teoria. Adin fisikoa mugarrira 50 da. Hortik gora, agurea. Mugarrira iritsi arte, gaztea. Eta adin tarte bakoitzean maila ezberdinak daude. Horrela, ni neu, 54 urte ederrekin agure nerabea naiz. 48 urte mukizu dituen gazte attondua da. Sintomak ere badaude. Agure-nerabezaroan sartzean, akabo zortzi orduko zure loak. Gauetan komunetik joan-etorria egitea ezinbesteko bihurtzen da. Gazte attondua, berriz, sakelako telefonoko letra tamaina handitzen hasten da edo betaurrekoak lagun egiten ditu. Adin mentalarentzat ere, nola ez, badau nire teoria. Buruz bat-batean zahartzen zara zure garaikoa datorrena baino hobea dela pentsatzen hasten zaren une berean. Konfort eremuz kanpo aritzeak sortzen duen ikara da sintoma argiena. Interneten sartu eta agiri digital bat eskatu behar izate hutsak izerdi hotza sorrarazten dizun une hori; udaletxera joan, ilara luzean zain egon, paper bat falta zaizula jabetu, berriz itzuli eta hilabeteren buruan lortu duzun agiri hori nahiago duzunean, zure etxeko gazteak bost minututan lortzen duen agiriaren parean. Bizitza erraztea bizitza nahastea bihurtzen den une hori. Lasai. Denok pasatu beharreko unea da. Ez larritu, ez indarrik galdu korrontearen aurka igerian. Eman F5ari eta gaurkotu, berritu. Izan gazte. Eta ezin bada, izan agure goxoa, ez izan agure petrala. Izan zoriontsu, egin sorioneke. ■





Goian, ezkerrean: Oihana Palacin. Goian, eskuinean: Laura Mongelos. Behean: Yolanda Cervero. MINBIZIAREN AURKA GIPUZKOAN

Minbiziaren eraginak arintzeko

Minbiziaren Aurka Gipuzkoan elkarteak egoitza du Azpeitian iazko martxoaz geroztik. Minbizia duten pertsonen zein horien familiei zuzendutako hainbat doako zerbitzu eskaintzen du elkarteak, "minbiziaren eragina murriztea eta herritarren bizi kalitatea hobetzea" xede. Azpeitiko bizilagunen beharrak identifikatu nahi dituzte, horiei "ahalik eta ondoen" erantzuteko.

Testua: **Maialen Etxaniz**. Argazkiak: **Maialen Etxaniz eta utzitakoak**.

Kolore berdedun aldarriak badu bere lekua Azpeitian 2022az geroztik. Baigera I eraikinean hartu du leku, hirugarren solairuan. Han ireki dute Minbiziaren Aurka Gipuzkoan elkartearen egoitza berria. Minbizia duten pertsonen nahiz haien senideei laguntzea da elkartearen helburu nagusietako bat, baina minbiziaren inguruko sentsibilizazioa lantzea eta horri aurre egiteko ikerketa lerroak martxan jartzea ere bada haien egitekoa. Finean, "osasunean hezteko, minbizia dutenei eta haien senideei laguntzeko eta minbiziaren diagnostiko eta tratamendu hobea ahalbidetuko duten ikerketa-proiektuak finantzatzeko" egiten du lan Minbiziaren Aurka Gipuzkoan elkartek.

Azpeitiko bulegoa da Gipuzkoan ireki duten azkena; izan ere, elkartek Zumarragan, Eibarren, Donostian, Zarautzen, Tolosan eta Irunen ere baditu egoitzak. Orain, Azpeitiko topalekua herriratu nahi dute, "jendeak elkartearen berri izan dezan". Oihana Palacin gizarte langilea, Laura Mongelos prebentzioko psikologoa eta Yolanda Cervero psikologoa dira Azpeitiko egoitzan lan egiten duten adituak, eta haiek eman dituzte elkartearen inguruko xehetasunak.

Minbiziaren Aurka Gipuzkoan elkartea irabazi asmorik gabea da, eta, horrenbestez, doako zerbitzuak eskaintzen ditu; besteak beste, arreta psikologikoa, arreta eta orientazio soziala, logopedia zerbitzua, talde tailerrak, boluntariora eta laguntza, aholkularitza medikoa, aholkuraritza juridikoa eta tabakoa uzteko terapia. Azpeitiko egoitzan laguntza psikologikoa, aholkularitza eta gizarte arreta eskaintzen dituzte bertatik bertara, baina bestelako egitekoetarako baliabideak ere jartzen dituzte. "Saiatzen gara ahalik eta ondoen erantzuten herritarren beharrei, eta horretarako dugu 24 orduko arreta zerbitzua", kontatu dute. Dena den, aditu bakoitzak bere egitekoa du, eta horiek aletu dituzte.

Desoreka sentipenei aurre

Minbiziak berak eta horri aurre egiteko tratamenduek eragindako ondoez emozionalari aurre egiteko laguntza psikologikoa eskaintzen du Cerverok. "Prozesu onkologiko batetik igarotzean, aldaketa asko egoten dira tratamendua jaso duen pertsona horren bikote, familia, gizarte eta lan arloan. Aldaketa horiek kudeatzeko laguntza behar izaten dute minbizia duten pertsonen; izan ere, ohikoa da gaixoei tratamenduak amaitutakoan emozio kontrajarriak izatea. Hau da, senti dezakete poztasuna eta lasaitasuna tratamenduak amaitzeagatik, baina, aldi berean, litekeena da hutsunea eta segurtasun eza ere sentitzea", azaldu du. Desoreka sentipen horri aurre egiten saiatzen dira Minbiziaren Aurka Gipuzkoan elkartekoak, gaixoei ez ezik, haien familiekin ere saioak eginez. "Ahalegintzen gara gaixotasunak pazientearen arlo sozial desberdinetan eragindako



Baigera I-eko egoitzako sarrera.

MAIALEN ETXANIZ

Iaz Gaztelekuko nerabeekin tabakorik gabeko guneez egindako saioa. GAZTELEKUA



aldaketa emozionalak orekatzen, egoera samurragoa izan dadin. Bakarkako, binakako nahiz familiako saioak eskaintzen ditugu", argitu du Cerverok.

"Pertsona bati minbizia diagnostikatzen dioten lehen unetik bertatik gaixotasuna amaitzen den unera arte laguntza eskaintzea" da elkartearen xedea. Hori dela eta, eragin psikologikoak ez ezik, gaitzak izan ditzakeen bestelako ondorio sozialen inguruko informazioa ematea ere bada elkartearen lehentasuna. Horrenbestez, gizarte arloko laguntzen inguruko aholkularitza eskaintzen dute egoitzan. Oihana Palacin arduratzen da horretaz: "Minbizia detektatzen dioten edozein pertsonak ezustean jasotzen du berria, eta ezjakina da zentzu askotan. Hori dela eta, erakundeek minbizia duten pertsonen bideratutako prestazioen nahiz baliabideen inguruko informazioa eta orientazioa eskaintzen dizkiegu herritarrei. Era berean, minbizia duten pertsonen gaixotasunak eraginda lan arloan dituzten zailtasunei ere erreparatzen diegu, traba horiei aterabidea emateko". Palacinek zehaztu duenez, baliabide materialak ere eskaintzen dituzte, hala nola ortopedia materiala.

Jatorrirra jo, sentsibilizatzeko

Azpeitian arreta eta zerbitzua eskaintzeko bulego berria ireki duten arren, aretoz kanpoko ekintzak ere egiten dituzte elkarteko kideek, "jendearen kontzientzia pizteko asmoz"; izan ere, haien hitzetan, "ebidentzia zientifikoek frogatu dute tumore jakin batzuen detekzio goiztiarra eraginkorra dela gaitzak eragiten duen inpaktua murrizteko". Hala, askotariko informazio kanpainak, hitzaldiak eta ekintzak antolatzen dituzte herritarrek sentsibilizatzeko. Esaterako, bularreko nahiz azaleko minbiziaren inguruko saioak egin izan dituzte Azpeitian. Era berean, zenbait substantziaren kontsumoak osasunean sortzen dituen eraginak aztertzen dituzte, horien ondorioak gizarteratzeko. Joan zen urtean, esaterako, Gaztelekuko erabiltzaileekin elkartu ziren Minbiziaren Aurka Gipuzkoaneko kideak. "Interesgarria izaten da gazteekin saioak egitea, haiek baitira etorkizunean minbiziaren ondorioak jasan ditzaketenak, lehen pertsona zein bigarrenengoan, eta ezinbestekoa da zenbait balio barneratzea". Mongelosek eskaintzen ditu tabakoa uzteko



saioak. Sentsibilizazio kanpainak ez ezik, boluntarioak lortzeko deialdiak ere egin dituzte herrian, eta hori da aurrera begira duten erronketako bat. "Egiten dugun lana gizarteratzeko, ezinbestekoak dira giza baliabideak, eta boluntario sarea handitzea eta indartzea lortu nahi dugu; izan ere, badago minbizia gertutik ezagutu duen jendea, orain antzeko egoeran daudenei laguntzeko prest dagoena. Nahiko genuke sen altruista edo boluntario hori duen jendea gurekin lan egitera animatzea, eta horretarako ere lan egingo dugu datozen hilabeteetan", adierazi du Cerverok.

Kasu ugari eta askotarikoak

2022. urtean 433 herritarrek jo zuten Minbiziaren Aurka Gipuzkoan elkarteak Azpeitian duen bulegora, prebentzio zein aholkularitza zerbitzuak, laguntza soziala edo arreta psikologikoa jasotzeko. Ez dituzte arlo bakoitzeko estatistikak jakinarazi, baina azpimarratu dute kasuak "askotarikoak" izan zirela: "Arreta jaso zutenen ehuneko handi batek azaleko minbiziaren inguruko kanpainaren barruan antolatutako ekintzetan parte hartu zuen. Pazienteen profila anitza da, baina guztiak dira 18 urtetik gorakoak. Adinaren arabera, desberdinak dira beharrak. Arlo psikologikoan adin tarte zalabeko herritarrak artatzen ditugu, aurrez esan bezala, bakarkako, binakako nahiz taldekako saioak eskaintzen ditugulako. Horrenbestez, minbizia dutenak, haien senideak, seme-alabak, lagunak... etortzen dira, baita dolua igarotzen ari direnak ere", azaldu du Cerverok.

Beste profil bateko herritarrak ere badaudela zehaztu du Palacinek: "Badaude gaixo paliatiboagoak, behar tekniko zehatzak dituztenak: ohe artikulatuak, ibilgailuak, dutxarako aulkiak... Horrelako eskaera ugari jasotzen ditugu".

Elkarteko kideek jakinarazi dutenez, azken hilabeteetan "jende ugari" jo du Baigerako bulegora zerbitzu eske, eta "pozik" daude. Dena den, uste dute asko direla zerbitzuen berri jaso ez duten herritarrak, eta haien beharrak zein diren ere jakin nahi dute. Hori dela eta, urte honetan zehar ere askotariko jarduerak antolatuko dituztela aurreratu dute, eta interesa duten baina zerbitzura jotzera ausartzen ez diren herritarrei bertaratzeko deia egin diete. ■

Azaleko minbiziaren prebentzio kanpainaren barruko ekintza, plazan.
UZTARRIA

**IAZ 433 HERRITARREK
JASO ZUTEN
ELKARTEAREN ARRETA
ZERBITZUREN BAT
AZPEITIAN**

**BAIGERA I-EKO
HIRUGARREN
SOLAIRUAN DU
EGOITZA MINBIZIAREN
AURKAKO ELKARTEAK**

Ugarte burdindegia, txikitasunean handi

1953. urtean Joxe Ugarte eta Axun Solaberrieta senar-emazteek sortutako saltokia hazten joan da, eta 70 urte eta gero, bailaran erreferentziazkoa izateko lanean jarraitzen du Ugarte burdindegia.

Teknologia, konpromisoa eta kalitatea. Horiek dira Ugarte burdindegiaeren ildo nagusiak. "Enpresaren eta ezagutzaren eguneratze teknologikoa, bezero partikularrekin nahiz profesionalekin dugun konpromisoa eta horien beharritan erantzuteko nahia, eta aurrera egitea ahalbidetuko diguten proiektu berritzaileak egiteko interesa, betiere, geure buruari ezarri diogun kalitatearen ildotik", dio Josu Astorkia burdindegiko arduradunak.

Oinarri horietatik abiatuta, gaur egun Zestoan bi salmenta puntu izatera iritsi da burdindegia. Lehen, ohiko burdindegia bezala ezagutzen denari eskainitakoa: bere jardura gehiena etxeko gaien salmentan, brikolajeetan, landa lanetako erremintetan, sarrailagintzan eta pinturan dago oinarrituta. Eta hornidura industrialari eskainitako



bigarren salmenta puntuan, mekanizazio tresna, makineria profesionala eta torloju aukera zabala aurki daiteke, beste produktu askoren artean.

Salmenta puntuez gain, ordea, Ugartek badiu beste burdindegiengandik bereizten duten aparteko zerbitzuak: "Garraio zerbitzu

propioa dugu Urola Kosta eta Debarrena eskualdeetan banaketak egiteko, eta akordio esklusibo garrantzitsuak ditugu ebaketa tresnen, urratzaileen, metrologiaren, lubrifikatzaileen, eskuzko eta altxatze tresnen sektoreko fabrikatzaileekin", gaineratu du arduradunak.

1953. urtea zen Joxe Ugarte eta Axun Solaberrieta senar-emazteek burdindegia zabaldu zutenean. Garai hartako herriko ostalaritza jardura garrantzitsuak eta ondorengo urteetan industria jardura indartzeak eragin positiboa izan zuten burdindegia txikian.



Ugarte burdindegia Zestoako eta inguruko enpresa garrantzitsu bihurtu zen, eta gaur egun, modu berean jarraitzen du.

70 urteko ibilbideak emandako esperientziak erakutsi du bide onetik doazela, eta aurrerantzean, halaxe jarraitzeko asmoa dute. Gainera, zailtasunak eta oztupoak gainditzeko ahalmena ere erakutsi dute. Izan ere, merkataritzak orokorrean, eta COVID-19ak eraginez, dituen zailtasunei aurre egitea lortu du Ugarte burdindegia. "Txikiak gara, herri txiki batekoak, horrek dituen eta eragiten dituen zailtasunekin. Azkenean, biztanle gutxi izateak bezero gutxi ekartzen ditu. Baina, guztira, 11 langilek osatzen dugu burdindegia, eta Zestoa bezalako herri batean handiak gara. Gainera, eskualdeko enpresa ugariarentzat egiten dugu lana. Bide horretatik jarraitu nahi dugu, bailaran erreferentziazkoak izan arte", gaineratu du Astorkiak. ■

Zozketak

70. urteurreneko ospakizunetan sartu da, beraz, Ugarte burdindegia. Urteurren berezia ospatzeko eta bezeroen leialtasuna saritzeko, zozketa bereziak egingo ditu. Zortzi zozketa izango dira, denera: batetik, lan egiten duten enpresen eta profesionalen artean lau zozketa; eta, bestetik, saltokietara joaten diren bezeroen artean beste lau.

1. Enpresek eta profesionalek 300 euroko erosketak egiteagatik zozketan parte hartzeko aukera izango dute, eta, irabaziz gero, Ugarte burdindegian bertan gastatzeko 500 euroko bonua eskuratuko dute.

2. Bezeroek, aldiz, hamar euroko erosketa eginez gero, beren datuak sartzeko txartela jasoko dute, eta urtaro bakoitzaren amaieran, 500 euroko balioa duen produktu sorta baten zozketan parte hartuko dute.

UGARTE BURDINDEGIA

Toribio Altzaga 16 | Portale Kalea 3 | ZESTOA

943-14 71 54 ☎ 608 33 93 39

  ugarteburidindegia | www.ugarte-zestoa.com





"Sentsazioen eta motibazioaren arabera aukeratzen ditut eskalatzeko bideak"

GORKA KARAPETO ESKALATZAILEA

Azpeitiko eskalatzaile askok bezala, haitzean gora lehen urratsak Izarraizko hormetan egin zituen Karapetok. 30 urteko eskarmentua du eskaladan, eta 41 urterekin eskalatu du orain artean egin duen zailtasun handieneko bidea: *Zeleeputza* (9a+). Iruñeko Bihatz eskalada gunearen jabeetako bat da, baina haitzik gabe, mendian eskalatu gabe, ez du ulertzen kirola.

Testua: **Nerea Uranga**. Argazkiak: **Nerea Uranga eta utzitakoak**.

Eskalatzen ikasten eta lehen urratsak egiten 14 urte zituela hasi zen Gorka Karapeto (Azpeitia, 1981). Nola ez, Izarraizko harrobian eman zituen lehen pausoak, lagunartean. Eskalatzen ikasi zuenetik ezagutu zuen esentziari, "eskalada ulertzeko moduari", heltzen dio Karapetok. Eskarmentuak, ordea, helburuei edota proiektu berriei lasaiago heltzen irakatsi dio.

Esan al daiteke iazko urtea borobila izan zenuela? Haitzean orain arteko zure maila gorenaren lortu zenuen, 9a+ maila, eta gizonetan, Azpeitiko Urteko Kirolaria saria jaso zenuen.

Ez nuke jakingo esaten iazkoa baino urte borobilagoak izan al ditudan; igoal bai. Iaz nahiko motibatuta eta dezente eskalatzen hasi nuen urtea, baina justu, tartean, hatzetako batean lesioa izan nuen, tendinitisa, eta pixka bat lasaiago ibiltzera behartuta egon nintzen. Dena den, sasoiari eusteko lanean jarraitu nuen, eta hatza osatzen joan zitzaidan eran, urtearen azken hilabeteetan, denbora gutxian, urtea borobiltzea lortu nuen. Iazkoan sona izan zuen Verdonen [Frantzia] egin nuen *La Ramirole* bideak [150

metro luze da, eta 8a+, 8a, 8b, 8a eta 6c zailtasuneko zatiak ditu]; Jose Luis Palau *Primo* Alacanteko [Herrialde Katalanak] laguna sokakide nuela igo nuen. Bideak ez du zailtasun izugarria, baina ez da horren ohikoa estilo horretako bideak egitea; oso bide kurioa da. Urtea bukatzeko, berriz, *Zeleeputza* bidea igotzea lortu nuen, alegia, egin ditudan bideetan gorenaren. Eskalatutako bideen kantitatea kontuan hartuta igoal ez, baina kalitateari erreparatuta, iazkoa urte borobila izan zela esango nuke. Gustura gelditu nintzen egindakoarekin. Azpeitian emandako saria, berriz, ez nuen espero, eta gustura hartzen dira horrelako aitortzak.

Ez da Azpeitiko Kirolaria Saria jaso duzun lehen aldia; 2006an ere saritu zintuzten.

Bai, orduan ere eman zidaten saria.

Gogoan zauzkate jaioterrian?

Bai, bai. 2006an eta 2022an eman zizkidaten Urteko Kirolaria sariak, eta bi aldien artean urte batzuk pasatu dira... Batetik, hor daude herrian egin dizkidaten aitortza horiek, eta bestetik, hor segitzen dudala gogorarazten didate sariek.

Iazko urrian lortu zenuen haitzean 9a+ zailtasuneko *Zeleeputza* (La Leze, Ilarduia, Araba) bidea egitea.



Karapeto Bihatx eskalada gunean, Iruñean. NEREA URANGA

Iker Pou eskalatzailea izan zen bide hori ekipatu zuena. Eskaladako bi bide [Zeledon Txiki eta Harroputza] nahasten dituen ibilbidea da. Pouk zabaldu zuen arren, ez zuen lortu egitea. Zeleputza aurreneko aldiz Jonatan Flor eskalatzaileak igo zuen, 2021ean. Ni ere Flor-ekin batera saiatu nintzen bidea egiten, baina ez nuen lortu. Iaz, ordea, hara berriro itzuli eta egitea lortu nuen.

***Zeleputza* egitea lortu duen hirugarren eskalatzailea zara.**

Bai, Flor-en ondoren Alex Garrigak egin zuen, eta gero nik. Bi horiek oso eskalatzaile indartsuak dira; ni baino gazteagoak dira, beste belaunaldi batekoak.

Nolakoa izan da bide horri heltzeko prozesua?

Aspalditik al zenuen begiz jota?

Eskalatzeko oso gustukoa dudan tokia da La Leze, bai inguruagatik, bai eskalada estiloagatik. Horrez gainera, eguraldi beroa egiten duenean eskalatzeko oso egokia da; iparraldekoa da, eta nahiko fresko egoten da. Dena den, urrian han eskalatzea ez da oso ohikoa, hotz egiten duelako, baina iaz udako denboraldia asko luzatu zen, eta egiten zuen eguraldi ona ikusita, sasoiaren bukaera aldera eskalatzea hara joaten hasi nintzen. Lesioa tarteko, Verdonera joan arte ez nengoen prestatuta, eta are gutxiago *Zeleputza* bezalako bide bati aurre egiteko; helduleku oso txikiak ditu hormak, eta nire lesioarentzako oso arriskutsua izan zitekeen. Behin lesioa osatuta, eta egiten zuen eguraldiarekin eskalatzea posible zela ikusita, saiatzera animatu nintzen. Aurretik, La Lezen eskalatu izan nuen, eta *Zeleputzaren* bi zatiak eginda nituen, bai *Zeledon Txiki*, baita *Harroputza* ere. Helburu horri berriro heltzea erabaki nuen, saiatzea, eta egitea lortu nuen.

9 zailtasuneko bideei 2008an ekin zenien, eta ordutik maila horretako zazpi bide egin dituzu: *Sistematik ihes* (Aizpun, Nafarroa), *Esclatamasters* (Perles, Herrialde katalanak), *Begi Puntuan* (Etxauri, Nafarroa), *Zeledon* (Araba), *Estado Crítico* (Siurana, Herrialde Katalanak), *Supernova* (Aragoi, Espainia) eta *Harroputza* (Araba). Maila horretan koska bat gora egiteak zer-nolako zailtasuna eta garrantzia du?

9.a eskalatzaile askok lortu nahiko luketen maila izan daitekeela uste dut. Zailtasun mailan 8tik 9ra pasatzeari ematen zaio halako garrantzi bat. Zailtasun horretako bideak mugarrira dira, besteak beste, zailtasun horretako bideen kantitateagatik. Behin maila hori lortutakoan, eskalatzen saia zaitezkeen gero eta bide gutxiago daudela konturatzen zara, eta gero eta gehiago kostatzen dela maila horretan aurrera egitea. Nire kasuan, garrantzia izan zuen 9 maila lortu izanak, baina maila horretan aurrera egitea zaila zela ikusi nuen: alde batetik, fisikoki muga bat duzu, eta bestetik, inguruan ez daude zailtasun hori duten bide asko; kanpora bidaiatu gabe behintzat ez dago aukera handirik. Horrez guztiaz gain, mailari eusteko denbora asko eskaini behar diozu



Karapeto Jose Luis Palau *Primorekin*, iazko abuztuan, *La Ramirole* bidea egin ondoren, Verdonen. UTZITAKOA

"ARRAZOI ASKOGATIK ZAILA EGITEN DA 9 MAILAN MANTENTZEA EDOTA GORA EGITEA"

"9B MAILAKO BIDE BAT EGITEA BAINO, MUGARA ERAMATEN NAUTEN PROIEKTUAK DITUT BURUAN"

"HAITZEKO ESKALADA ULERTZEKO MODUA MANTENDU EGITEN DA, ESENTZIA HORREK SEGITZEN DU"

eskalatzeari: entrenamendu asko, prestakuntza asko... Sasoian egon beharra dago, baina baita motibatuta ere. Arrazoi askogatik zaila egiten da maila horretan mantentzea edo gora egitea.

Zeileputza buruan sartu zitzaidan, eta ikusten nuen egiteko edo gainditzeko aukera banuela, eta horregatik aukeratu nuen bide hori.

Zailtasun handiko bide bat aurrez plaifikatzen al duzu?

Eskalatzaile batzuk helburu bati begira prestatzen dira, planifikazio bat egiten dute. Niri sasoia hartzen joatea gustatzen zait, baina ez planifikazio zehatz batekin. Fisikoki ondo egoten saiatzen naiz, baita motibazioa izaten eta mantentzen ere. Neure burua ezagutzen dut, eta antzematen dut noiz nagoen helburu bat lortzen saiatzeko prest. Behin baino gehiagotan gertatu izan zait helburu bat izatea baina aurre egiteko behar beste motibazio ez edukitzea.

Horrelakoetan, eskalada errazagoak egitera joaten naiz, eskaladarekin beste modu batean disfrutatzea, eta ez da ezer gertatzen.

Inori konturik eman beharrik ez al daukazu?

Egia esanda, ez. Azkenean, gabiltzan munduan ibilita, inguruan ditudan marka desberdinekin dudaren harremanagatik, gustatzen zait egin dudaren edota egiten ari naizenaren berri ematea edota hori elkarbanatzea. Baina inori ezer azaltzeko obligaziorik ez dut sentitzen. Helburua ez dut inoiz konpromiso baten arabera erabakitzen; ditudan sententzioen eta daukadan motibazioaren eta gogoaren arabera erabakitzen ditut eskalatze bideak.

41 urte, eta sasoiko.

Bai, bai, baina 18-19 edo 22 urterekin neukan gogoa edo motibazioa eta orain daukadana ez dira berdinak; orain, selektiboagoa naiz helburuak erabakitzerakoan. Momentuak ere lasaiago hartzen ditut; batzuetan forman sentitzen naiz, baina lasaitasun gehiago behar izaten dut: eskalada beste era batera hartu, pixka bat deskantsatu eta momentuak bilatu. Estimulu horien behar gehiago dut orain, eta lehen, aldiz, egunero izaten nuen eskalatze energia. Urte asko daramatzat eskalatzen, eta gauza bera egiten urte asko daramatzazunean, beste edozein gauzatan bezala, batzuetan gorabeherak izatea normala da. Ni horri guztiari heltzeko oreka bilatzen saiatzen naiz, eta hasieratik eskaladagatik sentitu dudaren sententzio hori ez galtzen ere bai.

Eskarmentuak buru lan gehiago ematen al du?

Fisikoki askotan sentitzen naiz sasoiko, baina nire helburuei beste era batera egiten diet aurre,

lasaiago. Esperientziak hori irakatsi dit, eta horrek momentu egokian erabaki egokiak hartzen laguntzen dit.

9b zailtasuneko bide bat eskalatzen saiatuko al zara?

Ez daukat hori buruan. 9b zailtasuneko bide bat egiteko, gutxienez, Kataluniara joaten ibili beharko nuke; Euskal Herrian ez dago, edo behintzat, orain arte ez da lortu irekitzea maila horretako biderik. Euskal Herrian halako zailtasundun bideren bat baldin balego, egunerokoan erosoago litzateke hara joatea, eta denbora gehiago eskaini ahalko nioke. Hala ere, behin ere ezin da ezetz esan; izan ere, auskalo, igoal, tokatzen baldin bada, batek daki saiatuko al nintzatekeen. Gero, egingo nukeen ala ez beste kontu bat da. Dena den, momentuz, beste proiektu batzuk dauzkat buruan. Ni mugara eramaten nauten proiektuak dira horiek, eta gero ikusiko dugu zer zailtasunetan koka daitezkeen edota nire proposamena zein izan daitekeen.

Eskalatzeke zer-nolako bideak dituzu gogokoen, eta zergatik?

Fuerte sentiaraztera behartzen nauten bideak dira niri gehien gustatzen zaizkidanak: erresistentzia eskatzen dutenak eta indarrez ondo egotea exijitzen didatenak, helduleku txikiak dituztelako edo mugimendu fisiko zailak eskatzen dizkidelako. Horrez gain, ondo eta txukun eskalatzea bultzatzen nauten bideak atsegin ditut; hau da, teknika tartean egotea gustatzen zait. Buruz kontzentratuta, mugimendu bakoitzean pauso bakoitza ondo egin behar dudala pentsatuz eta erresistentzia zein indarrak kudeatuz eskalatzea gustatzen zait; burbuila batean sartuta bezala aritzea. Bide azkar-azkarrak ez ditut gogoko.

14 urterekin hasi zinen eskalatzen Izarraizko harrobiko hormetan. Ordutik, asko aldatu al da eskaladaren mundua?

Eskalada gauza askotan aldatu da. Gaur egun, jende askok da eskalatzeke aukera eskura. Rokodromoen mundua hazi egin da, gero eta gehiago daude. Lehen jakin-minak bultzatuta joaten zen jendea eskalatza: lagun baten batekin hitz egin, "goazen probatzera" esan, eskalatzen zuen bateren batekin adostu laguntzea eta irakastea... Gu horrela hasi ginen, eta gero guk beste batzuei irakatsi genien. Mendi Federazioak nahiz mendizale elkarteek-eta eskalada ikastaroak antolatzen zituzten orduan ere, baina orain askoz eskurago dago hori guztia, eta Internetarekin informazio gehiago ere badago.

Momentuz, baina, –eta hala izaten segituko duela espero dut–, haitzean eskalatzea ulertzeko modua mantendu egiten da, haitzean eskalatzeke esentzia horrek modu berean segitzen du. Gure kasuan, Bihatz eskalada gunean [Iruñean dago, eta gune horren jabeetako bat da Karapeto] eskalatzen irakasten diogu jendeari. Nahiz eta rokodromo bat izan, nondik gatozen eta eskalatzeke dugun filosofia jendearekin elkarbanatzen saiatzen gara, eskalada bizitzeko dugun modua nolakoa den uler dezan: lagun giroa, naturarekin errespetuz jokatzeko... Hiriburu handietara ere iritsi da eskalada; bat-batean inoiz mendian ibili gabeko pertsonak joaten dira haitzera eskalatza, eta pentsatzen dute mendira bateren bat joango zaiela dena jasotzera. Batzuek, agian, badakite natura eta mendia errespetatu egin behar direla, baina beste batzuei irakatsi egin behar zaie. Eta gu eskaladako ikastaroetan hori guztia irakasten ere saiatzen gara.

Zer-nolako garrantzia du sokalagunak eskalatzerakoan?

Handia. Niretzako inportantea da gustura sentiarazten nauten bateren bat izatea sokalaguna, harekin konexioa izatea eta ondo konpontzea. Harmonia hori baldin badago, askoz ere gusturago eskalatzen da. Eskalatzerakoan komunikazioa egon behar du sokakideen artean: eskalatzen duenari ziurtasuna eman behar dio sokalagunak, baita eskalatzen duenak aseguratzen duenari ere. Bien artean lotura bat dago, eta bat seguru ez badago, besteari hori transmititzen dio. Beraz, garrantzitsua da sokalagunarekin seguru sentitzea eta gustura aritzea.

Haitzetik rokodromora zer alde dago?

Oso desberdinak dira. Haitzean eskalatzen mendian bakarrik ikasten da. Badago rokodromora eskalatza joaten den eta handik haitzera irtendakoan eskalatzea oso zaila egiten zaion jendea. Batean eta bestean eskalatzeke edota zapaltzeko modua oso desberdina da. Hala ere, eskalatza haitzera joaterako, entenatzeko oso erreminta ona da rokodromoa, baina eskalatza mendira joateari inoiz utzi gabe. Nik biak egiten ditut: haitza eskalada ulertzeko modu bat da niretzat, eta haitzik gabe ez nuke ulertuko eskalada; rokodromoan soilik eskalatzea kostatu egingo litzaidake.

Azken urteetan asko ugaritu dira eskalada eskolak edota rokodromoak. Zuk Bihatz eskalada gunea daukazu beste lagun batzuekin batera.



Karapeto 9a+ zailtasuna duen *Zepelutza* bidea egiten, La Lezen. UTZITAKOIA

Lehen horrelako instalazioak kiroldegietan-eta zeuden, baina egun, zerbitzu hori ematen duten gero eta instalazio pribatu gehiago daude. Eskalatzeko leku bat dira, baina elkartzeko leku sozialaren funtzioa ere betetzen dute. Bihatzten, behintzat, eskalada giroa sortzen da, eta mendira joan aurretik edo handik bueltan, jendea bertan elkartzen da zerbait hartzeko eta hitz egiteko. Eskalatzen hasi nintzenean, lagunarteko eskalada lokalak zeuden Azpeitian: gu, aurrena, Xaxtreren lokalean ibiltzen ginen, eta gero, Ondarreko lokalean. Finean, zure zaletasuna praktikatzeko eta hitz egiteko behar hori asetzeko guneak dira horiek. Egia da, orain, hori leku komertzialagoetan ematen dela.

Garai batean kirol eskaladako txapelketetan ibili zinen. Bost aldiz irabazi zenuen Euskal Herriko Kirol Eskalada Txapelketa: 2006an, 2007an, 2008an, 2009an eta 2011n. Noiz utzi zenituen txapelketak, eta zergatik?

Mikel Ziarrusta zenarekin brometan jarduten nuen, Euskal Herriko txapelketan bost txapel irabazi bai ala ez; hura beti txapeldun edo bigarren izaten zen. 2010ean hark irabazi zuen txapela, eta bosgarren txapela lortzeko, 2011ko

txapelketan parte hartu eta irabazi egin nuen. Tamalez, 2012. urtean laguna, Ziarrusta, hil egin zen. 2011koa izan zen nire azkenengo txapelketa, baita Ziarrustarena ere. Ordurako ez nuen txapelketetan aritzeko motibazio handirik. Espainiako txapelketaren batean edo bestean ere parte hartu nuen gero, baina batik bat eskaladako lagunekin egote aldera, ezer asko prestatu gabe. Txapelketetan parte hartzeko gogoia edota dena emateko nerbio sentsazio hori eduki egin behar da, eta nik ordurako ez nuen sentitzen tripetako nerbio hori. Uste dut nahikoa egin nuela, eta nire txapelketetako garaia pasatu zenean utzi nuela; haitzean eskalatzeko prozesuan murgildu nintzen. Dena den, txapelketetan aritu arren, inoiz ez nion utzi mendian eskaltzeari.

Eskaladako Euskal Selekzioarekin ere jardun zenuen.

Eskaladako Euskal Selekzioan hautatzaile jardun nuen 2016-2017 urteen inguruan, eta aurretik selekzioarekin ere lehiatu nintzen.

Zerbait ikasiko zenuen, ezta?

Bai, ikasi bai. Eskaltzaile gazteengandik gertu egonda eta aukeraketa egin beharra edukita, asko



Karapeto Bihatz eskala gunearen txokoetako batean. NEREA URANGA

ikasten da. Ez da lan erraza, denak aukeratu ahal izatea nahi izaten delako. Esperientzia berri bat izan zen, eta listo.

Nola ikusten duzu gaur egungo Euskal Herriko eskaladaren panorama?

Jende asko aritzen da eskalatzen, eta haitzean eskalatzeke zaletasun handia dago Euskal Herrian. Jendeak asko disfrutatzen du eskalatzen, eta giro oso ona dagoela uste dut. Gazteen artean, ordea, ez dut ikusten haitzerako horrenbesteko joera duen belaunaldirik: gazte jendea gehiago dabil eskalada txapelketetan eta rokodromoan, eta ez dut uste haitza eta rokodromoa hainbeste nahasten dituenik. Lehen gu bietan batera ibiltzen ginen txapelketetan, rokodromoan eta haitzean. Ez nuke jakingo esaten zer-nolako egoeran dagoen haitzeko eskalada gazteen artean. Txapelketetan, ordea, Euskal Herriko gazteek emaitza oso onak lortzen dituzte; oso-oso ondo prestatuta eta indartsu daude.

Azpeitian Sokaitz eskalada elkarte dago. Jende asko dabil elkarte. Jarraitzen al dituzu?

Bai, Azpeitian jende asko aritzen da eskalatzen. Baina Azpeitian eta Azpeitiko lagunekin nahi baino gutxiago egoten naiz gaur egun. Dena den, harremana mantentzen dut lagunekin, eta ahal dudan guztietan edota topo egiten dugunetan egoten naiz haiekin; horretarako tartea egiten dut. ■■■

MOTZEAN

Eskalatzeke egun apropos baten hiru ezaugarri?

Gustuko leku batean, gustuko jendearekin eta gustuko bideak egiten.

Eskalatzeke leku bat?

Etxauri [Nafarroa].

Eskalatzeke bide bat?

Zeleeputza, azkena izan delako.

Izarraitzko kanterako bide bat?

Sagardoa.

Sokalagun bat?

Nire lehenengo sokalaguna izan zena: Jon Sarasua Xamao. Hastapenetako momentu haiek oso inportanteak izan ziren, gaur egun naizena hasiera haiengatik naizelako. Hark aspaldi utzi zion eskalatzeari, eta ez gara ikusi ere egiten, baina idazten dit, jarraitzen eta zoriontzen nau.

Elkarrizketan harrobia aipatu dugu, eta horrek eraman nau garai hartara; lotuta doazen bi kontu dira. Askotan esan izan diogu Xamaok eta biok elkari: "Gu kordada gaituk!".

Egin gabe daukazu eta egitea gustatuko litzaizukeen bide bat?

Harrigosea, Etxaurin dagoena. Lehen 9a mailako bide bat zen, baina zati bat puskatu egin zen, eta oso zaila gelditu da eskalatzeke. Nire helburuetako bat da bide hori.

Ezagutzea gustatuko litzaizukeen toki bat?

Patagonia.

Eskalatzaile bat?

...[pentsatzen] Zaila egiten zait aukeratzea;

hainbeste dira, ez daukat bat esateko.

Eskalatzeke elementu bat?

Katuhankak.

Koh Tao 
OSAGARRIAK +
PIERCING ESTUDIOA
📍 JARRI DE AZPEITIA, 14-20730 AZPEITIA 📞 629 138 758

LAU 
NEUMATIKOAK
PNEUMATIKOAK - MEKANIKA AZKARRA
943 053056 Laloa kalea 20, 20730 Azpeitia

 **JARRI HEMEN
ZURE IRAGARKIA!**

NON DAGO UZTARRIA?



Lehiaketan parte hartzeko aurkitu aldizkarian Uztarrria pertsonaia eta bidali erantzuna lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara otsailaren 17a baino lehen. Bazkidearen izena eta telefono zenbakia zehaztu behar dira.

Saria: Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta.

Urtarrileko Uztarrria aldizkarian Uztarrria pertsonaia non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 43. orrialdean zegoen ezkutatuta, eta Mirari Aranburu bazkidea izan da irabazlea.



**URDAIAZPIKO,
HESTEBETEAk eta GAZTAK**

Ettxeko berezitasuna:
EZKUR URDAIAZPIKO IBERIKOA



Eñaut: 656 79 14 19
Oier: 618 24 01 73
kutxillo@gmail.com
Damazo Azkue 6
AZPEITIA

"Irakasten saiatzen ari zarela, zeuk ere asko ikasten duzu"

XABIER BIDEZABAL DANTZARIA

"Inertziatz edo beharragatik", baina dantzarekin txikitari hasitako bideari irmo eusten dio ia 43 urte eta gero Xabier Bidezabalek. 25 urtez aritu zen Itsasin, eta 35 daramatza, sorreratik, Zestoako Itxaropena taldean. Askok aldatu dira kontuak euskal dantzen taldeetan bera hasi zenetik.

Testua: **Mailo Oiarzabal**. Marrazkia: **Olatz Alkorta**. Argazkiak: **Mailo Oiarzabal eta utzitakoak**.

Sarri errepikatzen den esaldia da pertsona batek jarduera jakin batean "bizi osoa" daramala. Esaldi hori egitate hutsa da Xabier Bidezabalen (Azpeitia, 1971) eta euskal dantzen kasuan. Umetan hasi zuen bidea etenik gabe jorratu du eta jorratzen jarraitzen du. 51 urte bete berria da, eta datorren udazkenean beteko dira 43 dantzan hasi zenetik. Azpeitian Itsasiko kide gisa eta Zestoan Itxaropenaren sortzaile eta buru gisa, jarduera horri lotuta ezagutzen du jende askok.

Dantzari eta dantza irakasle, euskal dantzen azken lau hamarkadetakorabeherak ondo baino hobeto ezagutzeko aukera izan du.

Etxepeko kuadrilla

Kepa Otaegi zenaren bidez iritsi zen Bidezabal Itsasira 1979an, 8 urterekin. "Kepa lehengusu txikia genuen izatez, haren ama eta gure aita lehengusuak baitziren, eta etxepe berean bizi ginen, gainera. Dantza taldean ibiltzen zen horrekin, kuadrillan, etxepekoak jolasean aritzen ginenean, eta, komentatu egiten zigun, 'probatu egin behar duzue', 'etorri egin behar zarete'. Horrela, etxepeko zazpi-zortzi mutil hasi ginen dantzetara joaten".

Carasusanen egur fabrika izandako Itsasiren lehen lokal hura ondo gogoratzen du. "Sasi pila bat egoten zen inguruan, tailerra izandakoa onenak emanda zegoen. Hala ere, gu joaten hasi ginenerako egurrezko zoruarekin, ispiluekin-eta prestatuta zegoen lokala. Haren abantaila nagusia zen lokala ikaragarri handia zela. Entseguetarako kristoren lekua zen, nahiz eta, aipatutakoez gain, hain egokia ez izan: leihoetako kristalak apurtuta, neguan egundoko hotza egiten zuen han".

Trenbidetik oinez joaten ziren Bidezabal eta etxepeko dantzari kuadrillatxoak entseatzera, eta bide bera egiten zuten itzulerakoan.

Denborarekin, kuadrillatxoak txikitzen joan zen, batzuek utzi egin zuten Itsasi, baina ez zen hori izan Bidezabalen kasua. Garai hartan gazte asko zebilen Itsasin, eta etxepetik eramandako lagunarteaz gain, lagun berriak egiteko aukera izan zuen. Probatze aldera eta "ezer asko espero gabe" hasi eta "gustua hartu" zion dantzari, gaur arte etenik izan ez duen lotura pixkanaka sendotuz.

Itsasirekiko lotura ere guztiz-gustiz ez du inoiz eten izan, baina 2004an utzi zuen taldea, "jende askok oraindik ere Itsasirekin lotu arren"; izan ere, egun edota ekitaldi jakin batzuetan parte hartzen jarraitu izan du, hala nola artzain-inudeen Jai

Xabier





Karnabaleko kalejiran eta danborradako taldean. 18 urte zituenetik, bitan bakarrik huts egin du San Sebastian bezperan; eta umeen danborradako taldean ere ibili zen, Itsasiren taldeko zuzendari, bi urtetan. San Sebastian egunez jaiotakoa da, gainera, Bidezabal. Artzain-inudeetan 12 urterekin parte hartu zuen lehen aldiz, eta festa horretan ere behin bakarrik huts egin duela kontatu du. "Ume txikia genuen, eta urte hartan festa kanpotik ikustea erabaki nuen. Eta lehen etorrera Etxe-Zuri parean ikustea, eta 'ño, ez nagok ba ederki...' pentsatzea bat izan ziren". Damutu, damutu ez zela egin dio, baina arraro sentitu zela aitortu du.

Aipatutako kaleko bi ekitaldi nagusiez gain, taldekoek laguntzea behar izan dutenetan "puntualki" dantzatu izan du beste ekitaldiren batean ere. Baina 1999tik 2004ra elkarteko presidente izan ondoren, Itsasi uztea erabaki zuen. "Izaten dira bete egiten zaren uneak, horrela gertatu zitzaidan une hartan, eta 'honaino' esan nuen".

Zestoan, sorreratik

Itsasin 25 urteko ibilbidea osatu zuen Bidezabalek, eta are luzeagoa da Zestoako Itxaropena dantza taldean osatu duena etaosatzen jarraitzen duena.

14 urterekin, gazteagoen taldeei dantzan irakasten laguntzen hasi zen Itsasin; "ondo moldatzen nintzen dantzan, itxuraz", dio. Handik bi urtera, berri, Zestoan hasi zen dantza eskolak

ematen. "Irakasten saiatzen ari zarela, zeuk ere asko ikasten duzu. Nik, behintzat, horrela sentitu izan dut betitik". Zestoako ikastolako gurasoek seme-alabentzat euskal dantza eskolak antolatzea erabaki zuten, eskolaz kanpoko ekintzen artean. Irakasleak behar zituztela eta, Bidezabalen izeko baten bidez, Itsasiko dantzari gazteengana jo zuten. "Zestoan egon zen bere garaian Itxaropena izeneko dantza talde bat, baina ordurako galduta zegoen", azaldu du azpeitiarrak. Miren Olatz Arozena lehengusua eta biak hasi ziren Zestoako haurrei dantza eskolak ematen, "xentimorik kobratu gabe", borondatez. "Egun, berehalakoan hasiko litzateke inor baldintza horietan.

Xabier Bidezabal

- **Adina:** 51 urte.
- **Ikasketak:** Ingeniaritza Teknikoa elektronika alorrean, MUn.
- **Lanbidea:** Mantenimendu teknikari 24 urtez eta makina programatzaile lau urtez, Lan Mobel S. Coop-en.
- **Dantzaria ez banintz...** Ez dakit, ba. Dantzari hainbeste ordu eskaini dizkiodanez, azken urte luzeetan ez dut beste zaletasunik landu.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** Lasai egotea, eta pixka bat irakurtzea.



Itxaropenarekin, Zestaoan. UTZITAKOAK



Artzain-inudeekin, iaz. Eskuineko argazkian, alabarekin eta ilobarekin. UTZITAKOAK



Zoritarrez, seko jota daude boluntario lanak", bota du hausnarketa Bidezabalek.

Eskolaz kanpoko klaseekin hasi zena herriko dantza talde bihurtu zen urteen poderioz, lehen izandako Itxaropena haren izen bera hartuta. "Eta gaur arte", Bidezabalen hitzetan. Bera barne, hogeitaz dantzari ari dira egun Itxaropenaren nagusien taldean, eta azpeitiarrarena da talde horren ardura; astero ordu eta erdiko entsegua egiten dute. Umeen sei talde ere badituzte, eta nagusien taldeko beste kide batzuk arduratzen dira horiez.

Pizgarririk gabe

Euskal dantzetako taldeen urte loriatsuak bizitakoa da Bidezabal, eta azkenaldiko gainbehera ere bai. Indarra galdu dute herrietako dantza taldeek, dantzari gutxiago dabil gaur egun talde horietan, eta are gutxiago dira Bidezabalen gisa txikitan hasi eta urte askotan jarraitzen dutenak.

Gizartea bera aldatu da, joerak eta jarrerak. Horrez gain, "pizgarriak" falta direla uste du Bidezabalek, dantzak erakargarri bihurtzeko. "Garai batean, udan atzerrira irteten ginen ia urtero", ekarri du gogora. "Gaur egun askoz gehiago bidaiatzen du jendeak, edozein tokitara joatera ohituta daude umetatik. Guretzat edozein

igandetan Mutrikura dantzara joanez egun-pasa egitea, berriz, egundoko plaza izan zitekeen. Orain, gonbidapena jaso herri batera dantzara joateko, eta talderik ezin osatu", gehitu du, garaia nola aldatu diren nabarmenduz. Dantzak oro har, eta euskal dantzak tartean, nesken kontu bihurtu dira. "Hala da. Asko aztertu den kontua da hori, baina ez du konponbide errazik. Moda kontuak aipatu izan dira... Baina, esan bezala, dantzak oro har erakarpina galdu du, eta arrazoi askogatik".

Dantzaria eta dantzazalea da Bidezabal. Euskal dantzez gain, aretoko dantzak ere probatutakoa da, eta "gustura". Festara irtendakoan ere "mugitzekoa" dela dio, uneko doinura moldatzeko aitzakiarik gabe. "Gertatzen dena da, kuadrillan oso gutxi direla mugitzen direnak, eta batzuetan, frenatu egin izan naiz. Izan ere, bakarrik, gaizki".

Gauza asko eman dizkio dantzak Bidezabali; emaztea ere dantzaren bidez ezagutu zuen. Irits daitekeela badaki, baina oraindik ez du gertu ikusten dantza uzteko unea. "Nire bizitzaren parte izan da beti dantza, haren inguruan joan zaizkit gauzak gertatzen. Askotan nekatuta sentitu arren, betetzen nauen zerbait da dantza. Ez dakit inertziaz edo beharragatik den, baina gustura ibili izan naiz beti dantzaren munduan". ■

bertako-REKIN BAI!

igogailuak | ascensores

GIPUZKOA

943 903 450

ORDTARIKO ZERBITZUA

100€-tik/hileko

- Biziartz muntentza-ten profesionalari
- Biziartz bertako 24/7/365 zerbitzuari

www.bertako.eus

WIZAI MATEZKI NEKESTOA

Zeer?! Jarri irudiña bakoitzari dagokien hizkia eta abesti ezagun baten zatia agertuko zaizu.

DOMINOAN

Dakizunez, ilargiak zirkloak osatzen ditu, eta horren arabera aldatzen zaie forma, Lurretik begiratuta. Oso ezazu dominoa, forma edo fase horiek kontuan hartuta.

HANDIENETIK TXIKIENERA

Ordena itzazu izar uxok handienari 1, hurrenari 2 eta txikienera 8 zenbakia emanez.

DOMINOAN

Dakizunez, ilargiak zirkloak osatzen ditu, eta horren arabera aldatzen zaie forma, Lurretik begiratuta. Oso ezazu dominoa, forma edo fase horiek kontuan hartuta.

HANDIENETIK TXIKIENERA

Ordena itzazu izar uxok handienari 1, hurrenari 2 eta txikienera 8 zenbakia emanez.



ILGORAKO SUDOKUA

Osa ezazu sudokua, ILGORA osatzen duten hizkiekin (I, L, G, O, R eta A). Hizki bakoitzak behin agertu behar du leerro, zutabe eta areo bakoitzeko.


HAMAika IKUSTEKO JAIOAK

Aurki itzazu bi irudi hauen artean dauden aldeak. 11 dira guztira.



Itzala

Letu astronauta bakoitzari bere itzala.



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/



www.gukazerbitzuak.eus

08



Ikus-entzunezkoak

09



Argitalpen
digital
multimedia

01

Publizitatea



Papera

07



Identitatea
eta marka irudia

06



Diseinu
lanak

MARKETIN eta KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK



Atari digitalak



Telebista

02



Estrategia eta
planifikazioa

03



Komunikazio
kanpainak

04



Edukien
sorkuntza

05



Webguneak eta
marketin
digitala

B

K

erlo



KH

nn

ZH

Bakoitzak bere zertarakoak



IMANOL AMIANO

Urtero bezala, iaz ere Durangoko Azokara joateko asmoa nuen, eta, urtero bezala, ez nintzen joan. Iaz, gainera, Iñaki Segurola joango ez litzatekeen ekitaldira joateko asmo sendoa nuen, baina kale. Ezin izan nuen. Edo ez nuen nahi izan. Edo auskalo. Neure *ganorexia* partikularrak erasota edo. Batek daki, neuk ez dakit eta. Azkenean, lagun ezagunak agurtuz eskuratu asmo nuen liburua lagun ezezagunari eskatu nion.

Egia esan, urtero neure burua engainatzen dut, ze, benetan, ez dut uste Durangorako benetako asmorik izaten dudarik. Horrelako sarao-juntadizoez nekanazkatu egiten naute, zer egingo diogu, ba, hauteskundeek, Piquek eta Shaquirak, eolikoek, plandemiak, bertso finalak edota Hertzainaken hurrengo azken-hurrengo kontzertuak nazkanekatzten nauten bezalaxe; (Kutxabankeko) kontuak kontu –nola aldatzen diren gauzak, kamarada–, beren garrantzian, ezinbestekotasunean, nekaspertzen, aspernazkatzen

naute. Adin-kontua izango da –eskelak nahi baino sarriago begiratzen hasia naiz–, beharbada, baina gero eta gutxiago axola zait zer pentsa dezakezun, irakurle, nire gezurrezko egiez, gezur berdaderoiez, isilune zalapartatsuez, hitzontzikeria hutsalez.

Eta hori horrela da. Nahiago dut neure egia berdaderoak, gezurrezko gezurrak, isilune isilak eta hitzontzikeria zalapartatsuak neuretzat gorde. Neure zertarakoetarako. Izan ere, zertarako gaude hemen? Azpeitiarrak, benetako azpeitiar, *azpeitiano* berdaderoak, garbi daukazue: lozorro antzean pasatu sansebastianetako danbor-barrika, karnabaletako elegante-mozorroko zezenalditik astesantuetako

**GERO ETA GUTXIAGO
AXOLA ZAIT ZER
PENTSA DEZAKEZUN,
IRAKURLE, NIRE
GEZURREZKO EGIEZ**

oporraldira arteko berrogeialdia; azpeitiarrak *zertarako* gehiago dituzue – eta ditugu, onartu beharra daukat, etorkinok– neguko nekaldia, nazkaldia igarotzeko. Zer da, bada, bizitza garizumen ondoko zertarako (soil) mordoa bata bestearen atzetik ez bada, jarraitu beharreko ogi-apurrez jositako Abitainerako (edo Baldatxorako, kanposantu guztiak baitira Erroma) bidea ez bada?

Neuri oilo-ipurdirik jartzen ez bazait ere, eta lekukoa ez izanda, gustatzen zait lagun-ezagun danbor-txapa joleen puzker serioen zein seriotasun komikoaren lekuko izatea, eta ondo (baino hobeto) pasatzen dut azkoitiarrontzat –niretzat, bederen– *ez-leku* den leku honetan koinatuaren ezkon-trajea zein nonbaitetik ateratako mozorroa soinean lagun-ezagun horiekin serio samar puzkertzen. Gustuko dut, gehienetan, neure laneko zertarakoa ere, ez pentsa, baita neure-neureak diren zertarakoetan murgiltzea ere, baina *ganorexia* beti dago hor, adi, zertarakoa noiz amaitu, zain. ■

Garai zailak santa eskearen tradizioari eusteko

TESTUA: **LEIRE IBAR**

ARGAZKIAK: **UTZITAKOAK**

Neguko jaietako bat da Santa Ageda, Agate Deuna edo Dona Agata izenez ezagutzen eta otsailaren 5ean ospatzen den eguna. Hala eta guztiz, bezperan herriratu izan da Euskal Herrian mende mende mantendu den usadioa; baserriz baserri koplak kantatuz eskean joatearen ohitura, alegia. "Santa Ageda bezpera dugu, Euskal Herriko eguna, etxe guztiak kantuz pozteko aukeratua duguna", dio inguruotan zabalduen dagoen kopleta batek. Antzinako tradizioari eustea geroz eta zailagoa bilakatzen ari dela aitortu du, ordea, Xabier Olaizola Matxinbentako santa eskeko taldeko partaide ohiak.

Ohitura horren jatorriaren nondik norakoak argitzea zaila bada ere, bada neguko solstizioaren ondoren, otsailean oraindik lo dagoen lurra iratzartzeko xedearekin gauzatutako ekintza dela esaten duen teoriarik; lurra kolpatuz, izadia esnatzeko helburuarekin egiten zela, hain zuzen ere, santa eskea. Bada ondoren Elizak gentil ohitura bereganatu zuela dioenik ere, baina nork daki. Jakinekoa da, ordea, urteak joan eta urteak etorri, eskuan makilak hartu

eta baserriz baserri edo etxez etxe koplak zaharrak kantatuz aritzeko ohiturak bizirik jarraitzen duela Euskal Herrian. Azpeitian ere bada tradizio horri azken hamarkadetan eutsi dionik, horren erakusgarri izanik, esaterako, Matxinbentako taldea, zeinak otsailaren 4an Izarraizko magaleko baserri ugari zein Azpeitiko kaleak kantuz alaitzen jardun izan duen. Orain arte, trikirilariz, pandero jotzailez eta bertsolariz lagundutako hamar pertsona inguruko taldeak baserritarrez jantzita eguna kantuan pasatzen zuen. Aurtun, dena den, ez dira santa eskean irtengo.

Ibilbidea "erosoago"

Azken urteotan, goizean goiz elkartu eta Santa Ageda egunaren bezpera kantuz alaitzeko jardunari hasiera ematen zion Matxinbentako taldeak, inguruko baserri gehienetako atarietara bertaratzuz. Baserrietan abestu, eta bertakoek kafea eman

BEHIN SUA ITZALITA BERRIRO PIZTEA OSO ZAILA IZANGO DELA ADIERAZI DU XABIER OLAIZOLAK

ostean, Loiola Irratiak martxan ziharduen garaietan, koplak batzuk kantatzeko ohitura zutela adierazi du Olaizolak. Ondoren, kalera jaitsi eta kantaz kanta taberna askotatik igarotzen ziren, hasi Alde Zaharrekoetatik eta Landeta auzokoetara arte. Taldean "giro ederra" sortzen zela, eta eguna aurrera joan ahala, baserrietan eskainitako mokaduekin eta txikitoekin bertsolaria ez zena ere bertsolari bihurtzen zela azaldu du taldekideak. Jan-edanaz gozatzeaz gain, eskean lortutako dirua bazkari edo afariaren bat antolatzeko aprobetxatzen zuten.

Azpeitiarrak esandakoaren arabera, baliabideen hobekuntzekin batera, "erosoagoa" bilakatu da santa eskeko ibilbidea gauzatzea. Izan ere, baserri batetik besterako toki aldaketa furgoneta bidez egin izan dute azkenaldian, eta bazen lehen bide guztia oinez egiten zuenik. Otsailaren 4ko goizean kantuan hasi, iluntze osoa horretan pasatu eta hurrengo eguneko goizean amaitzen zuten jarduna.

Bilakaera izan du

Antzina, mutil gazteak bakarrik ibil zitezkeen gau horretan kantari, baina XX. mendeko



Goian, ezkerrean dagoena da Xabier Olaizola.

azken hamarkadaz geroztik, emakumeek nahiz adin guztietako herritarrek parte hartu izan dute jai horretan. Olaizolaren arabera, 1980ko hamarkadan, bera gazterik kantuan hasi zenean, gizonezkoek bakarrik osatzen zuten taldea. Azken urteetan, ordea, emakumeek zein gizonek parte hartu dute ospakizunean. 30 urte inguruz aritu da Olaizola Santa Ageda egunaren bezperan kaleak kantuz alaitzen, eta aitortu du "gauzak asko" aldatu direla. Besteak beste, urtetik urtera, gero eta baserri gehiago gelditu

dira hutsik. "Ni santa eskean irteten hasi eta berehala ekin zioten Ibai-Eder urtegia eraikitzeari, eta ur azpian gelditu ziren baserri batzuk". Hala eta guztiz, oraindik badaude urtez urte bisita egitera joaten diren baserriak, eta bertakoek "ilusio handiz" hartzen dituztela adierazi du. Nahiz eta, kontrara, "lata ematera" joaten direla esaten duenik ere badagoen. Dena den, Olaizolak jakinarazi du orokorrean herritarrek oso gustura eta esku zabalik hartzen dituztela. Hark dioenez, ederra da etxe atarira joan eta jende

bolumena ikustea, jende gutxi egonez gero "tristura" sartzen baitzaio.

Eskean irteteko ohitura zuten parte hartzaileen kopuruak ere gorabeherak izan ditu urteetan zehar. Normalean, hamar lagun inguru elkartu izan dira. "Bizi izan ditugu hamaika lagunetik gora elkartu garen garaiak ere, baina oso gutxitan suertatu da hori", dio. Taldearekin batera aritu izan dira urte luzez Iñaki Garmendia *Laja* eta Jesus Alberdi *Egileor* trikitilariak, pandero jotzaileak eta bertsolariak. Azken urteetan bi bertsolari jardun dira



Matxinbentako santa eskeko taldearen irudiak.



Xabier Olaizola, ezkerrean, edalontziarekin.

Matxinbentako taldearekin santa eskean; izan ere, egunean zehar mila bertsotik gora kantatu behar izaten zituzten, eta bertsolari bakarra izanez gero, ahotsik gabe gelditzen zen hura egunaren amaierarako. Esaterako, behin baino gehiagotan etorri izan da Astigarragatik (Gipuzkoa) Agin Laburu bertsolaria.

Santa eskeak pandemia garaian izan duen etenak ere ondorioak

utzi ditu. Izan ere, Olaizolak adierazi duenez, "oso zaila" da urte batean gelditutako ohiturari berriro heltzea: "Gogoa behar da, eta bateren bat behar da indarra atera eta eguna antolatzeko".

Koplen hitzetan jorratzen diren gaiek ere izan dute bilakera urteotan. Izan ere, nahiz eta lurralde batetik bestera edo herri batetik bestera abestiak aldatzen diren, gaur egun kantatzen diren

doinuak ez dira lehen kantatzen ziren berberak; zenbait egokitzapen izan dituzte. Badira herri guztietako kopletan mantentzen diren hitzak, baina aipagarria da badirela bertsolariek bat-batean botatzen dituzten errimak ere. Berezia da, halaber, Ablitasen, Nafarroan, zabaldutako kondaira. Zera esaten zen bertako bizilagunen artean: Santa Ageda bezperan udako ekaitzen banaketa erabakitzen zela.

Sua itzaltzen

Azpeitiko ikastetxeek Santa Ageda bezpera ospatzen jarraituko dute, ikasleek eskuan makila hartuta eta lepoan kolore bizidun zapia jantzita alaituko baitituzte herriko kaleak koplazaharren doinupean. Badirudi, hala ere, Matxinbentako auzotik zetorren ohiturari eutsiz eta elkar animatuz osaturiko taldeak aurtan ez diola tradizioari jarraipenik emango. Bat baino gehiago izan dira azken urteotan santa eskearen ohiturari eusten zioten taldeak, baina, gutxinakagutxinaka, desegiten joan dira, eta gauza bera gertatu da orain arte Azpeitian indar handiena zuen taldearekin: Matxinbentakoarekin. Etorkizunean berriro usadioari heltzea baztertzen ez duten arren, behin sua itzalita berriro piztea oso zaila dela adierazi du Olaizolak. ■

Hangoak, hemengoak



IONE GURRUTXAGA

Orain gutxi irakurri dut laster beteko direla 37 urte Urolako trenak azken bidaia egin zuenetik gure herria zeharkatuz. Jada hain gazteak ez garen belaunaldiok ere ez genuen martxan ezagutu, baina sarri entzun ditugu tren zaharraren inguruko pasadizoak, gure guraso nahiz aitona-amonek egindako joan-etorrietako istorioak. Eta modu berean entzun ditugu bestelako etorkizun baten bila herrira iritsi ziren haien inguruko kontakizunak ere, Espainia aldetik lanera etorri ziren lehen familia haiei buruzko kontuak.

Orain bi hilabete pasatxo, Urolako trenak iparrerantz egiten zuen bideari jarraituz, familia haietako asko elkartu ziren Soreasu antzokian, aspaldian halako betekadarik ikusi gabeak ziren besaulkietan. Azpeitiko Udalaren ekimenez sortutako *Kastellanuek* dokumentalaren estreinaldirako bildu ziren bertan trenbide bihurrian zehar iritsitako asko, bai eta haien ondorengoak ere. Atzera begira jarrita, orain dela 50-60 urteko bizimodu gordina agertu zen protagonisten hitzetan: zeukaten guztia atzean utzi eta hutsetik hasi beharra, klimaz, ohituraz eta hizkuntzaz desberdina zen lurralde batean, guztiz arrotza

zitzaien inguru batean. Eta, hala eta guztiz ere, esker oneko hitzak besterik ez herriarentzat, azpeitiarrentzat.

Zer den denbora, oroitzapenak lausotu nahiz ezabatzeko bitarteko aproposa. Eta, haren osagarri, atzera begira jarrita, onari soilik heltzeko gizakiaren gaitasuna: nagusiki, bi osagai horiek ditu dokumentalak; irudipen horrekin irten nintzen ni, behintzat, antzokitik. Baina ez da historialari abila izan behar hasiera hura ez zela nahi bezain samurra izan jakiteko: bizitza berria hasi behar zuten haiek izango zituzten beldurrak, eta bizilagun berriak onartu behar zituztenek, errezeloak. Hasieran, beraz, olioia eta ura bezala: euskaldunak euskaldunekin, maketoak maketoekin. Eta, gure etxeokak, inguruko auzoetatik Sanjuandegi sortu berrira iritsi ziren baserritarren haurren moduan, *hezurbeltzen* seme-alabekin borrokan.

**SARRI AHAZTEN DUGU
GURE LANA DELA
ETORRI BERRI DIREN
HORIEK HERRIAREN
ZATI SENTITZEA**

Integrazioa hitzetik hortzera dabilen garaiotan, irudi lezake, umeen borroka gorabehera, etorri berriek, pixkanaka, ez zutela aparteko arazorik izan herrian onartuak izateko. Baina Sanjuandegik urteetan izan duen famak bestelako iragan bat erakuts lezake: herriaren zati bai, baina, betiere, saihesbideaz bestalde.

Historia oso presente izatea garrantzitsua omen da: gure arbasoek zer eta nola egin zuten jakitea ezinbestekoa dugu, haien bide beretik jotzeko, haien hanka-sartze eta okerrak ez errepikatzeko. Eta, oraintxe bertan, ez dakit ez ote goazen orain dela 50 urteko azpeitiarren bide beretik zenbait kontutan: ez al gara Espainia aldetik etorritako haiekin egindakoa berriro egiten ari mundu zabaletik datozen bizilagun berrieekin?

Sarri ahazten dugu herrira etorri zaizkigun horiek guztiak ez direla halabeharrez etorri, egoerak bultzatu dituela horretara, bere garaian Euskal Herritik joan behar izan zuten asko bezala. Eta sarri ahazten dugu gure lana dela etorri berri diren horiek herriaren zati sentitzea, bizikidetzat bultzatzea, hurrengo belaunaldiek elkarrekin bizi beharko baitute, Sarrionandiak dioen bezala, nekez uzten baitu bere sorteria sustraiak han dituenak. ■

IZAN IRAKUR ZALE!



**EGIN BAZKIDE ETA %30 EKO
DESKONTUA IZANGO DUZU**
bazkide@ukt.eus • 943-81 38 41


UZTARRIA

LAGUNTZAILEA



Diruzkoak 2016. urtekoak





"Metodologia praktikoagatik aukeratu nuen Mondragon Unibertsitatea"

Deñe Garcia-Bravo Alberdi (Azpeitia, 19 urte) Ikus-entzunezko Komunikazioa graduaren hirugarren mailako ikaslea da Mondragon Unibertsitatean.

Definitu apur bat zure burua. Non egin dituzu orain arteko ikasketak? Ba al duzu zaletasunik?

Azpeitiko Karmelo Etxegarai Ikastolan egin nituen Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasketak, eta Urola Ikastolan gauzatu nituen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketak eta Batxilergoa. Nire zaletasun handiena musika da.

Zergatik aukeratu zenuen Ikus-entzunezko Komunikazioa gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Telebistan, eskuko telefonon eta plataforma digitaletan ikus-entzunezkoak kontsumitzen hasi nintzenean, ikusten eta entzuten nuen horren atzean zegoen mundu hori deskubritzeko grina piztu zitzaidan. Mundu horren nondik norakoak barneratzeko nahiak eraman ninduen Mondragon Unibertsitateko Aretxabaletako campusaren ateetara. Ogibidean izan ditzakedan indarguneak aurkitzeko eta praktikotasunez ikasteko metodologiak konbentzitu ninduen Mondragon Unibertsitatea aukeratzeko.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia? Unibertsitatean bizi dudana esperientzia oso ona ari da izaten. Garapen pertsonalean eta profesionalean sekulako aldaketa nabaritu dut. Pixkanaka-pixkanaka, ikus-entzunezkoetan aurki ditzakegun lanbide desberdinetako alor teorikoak eta praktikoak barneratzen ari gara.

Nola definituko zenuke Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Fakultateak duen eginez ikasteko metodologiak oso ondo funtzionatzen duela esan dezaket. Esan beharra daukat fakultateak duen metodologiagatik ari naizela ikasketak egiten Mondragon Unibertsitatean, ikus-entzunezkoek praktikotasuna eskatzen baitute. Fakultateak eskaintzen dituen dinamikotasuna eta profesionaltasuna kontuan hartzeko faktoreak dira. Maila profesionaleko proiektuak gauzatzeko aukerak eta tresnak eskaintzen dizkigute modulu bakoitzean, eta taldean lan eginez maila profesionaleko ikus-entzunezkoak sortzeko gaitasuna garatzen dugu.

Zer da unibertsitatetik gehien gustatzen zaizuna?

Orain arte ikasi dudana eta ikasten dugun modua gustuko ditut. Horrez gain, irakasleen eta ikasleen arteko harreman estua ere asko baloratzen dut, eta lan egiteko dagoen metodologia ere ezin



Deñe Garcia-Bravo Alberdi Ikus-entzunezko Komunikazioa graduaren hirugarren maila ikasten ari da.

hobia iruditzen zait. Ikus-entzunezko proiektu guztiak aurrera eramateko nahitaezkoa da taldelana, eta hori ikasten ari gara. Bestalde, asko gustatzen zait unibertsitatean dugun mailegu zerbitzua, ikus-entzunezko proiektuak gauzatzeko materiala eta gelak nahiz lekuak mailegatu daitezkeelako.

Etorkizunera begira, zeintzuk dira zure asmoak?

Deñe musika proiektuan murgilduta nago orain, ikasketak egiten ditudan bitartean. Unibertsitatea bukatzean asko gustatuko litzaidake komunikatzaile gisa irratian edota telebistan lan egitea. Kamera atzeko edota irati estudioetik kanpoko lanak ere gustatzen zaizkit.



Ezkutukoa, benetan

Mendeek, kareak eta pintura geruzek estalitako altxorra berreskuratu zuten mende honetako lehen hamarkadan Azpeitiko parrokiako Bakardadearen kaperan. Errenazimentuko margoek eta eskulturek argitu zituzten biltegi ilunaren hormak, baina ezkutuko altxor izaten jarraitzen dute askorentzat.

Testua eta argazkiak: **Mailo Oiarzabal.**



Saez Elolaren hil kapera

Nicolas Saez Elolaren aginduz, hark Peruko inken ondasunak arpilatuz batutako aberastasuna baliatuta, eraiki zuten Bakardadearen kapera XVI. mendean. Bere hil kapera eraikitzeke erosi zuen orubea Elolak, parrokiaren kontra. Francisco Pizarroren kapitain izandako azpeitiarraren 'balentriak' goratzen dituen margolan ikusgarria eta haren pean hildako zalduna irudikatzen duen eskultura (argazkian) gordetzen dituen hilobi-eskultura da, hain zuzen ere, kaperako elementu nabarmenetako bat.

Zorua gako

2002. urte inguruan, enegarren berregokitze lanak hasi zituen Parrokiak Bakardadearen kaperan, berrerabilgarri jartzeko. Lanak hasterako, txosten arkeologikoa behar zuten, eta txosten hori osatzeko lurreko zati bat harrotu zutenean, 1800 inguruko hobiratzeen aztarnak topatu zituzten, hamabost eskeleto. Zuloa handitu zutenean, berriz, kanpai bat egiteko molde baten oinarria azaleratu zuten, duela 450 bat urtekoa. Eta lan horietan ari zirenek aurkitu zituzten, kale aldeko paretan, Errenazimenduko margolanen lehen aztarnak.



Michelangeloren erreprodukzioa

Margolanak dira Bakardadearen kaperaren berezitasun nagusia, eta hegoaldeko hormakoak, eta kale aldeko ematen duenekoak, dira gehien nabarmentzen direnak (argazkian); hor topatu zituzten, hain zuzen, margoen lehen aztarnak. Erdialdeko margoak betirako galdu baziren ere, Michelangeloren eta Hans Holbein Gaztearen lan banaren erreprodukzioak erakusten dituzte berreskuratutakoek. Errenazimentu garaiko eta estiloko Euskal Herriko erakusgarri bilakatu dira margo horiek, 2006an kapera birgaitzea bukatu zutenetik.



Lehen eta orain

1800ean estali zituzten lehen aldiz kaperako jatorrizko margoak. Karearekin zuritu zituzten, osasun eta higiene arrazoiak tarteko, kapera hilobiratzeetarako erabiltzen hasi zirenean. 1898an jasan zuen kaperak hurrengo birgaitze nagusia. "Lan hori egin zuenari agindu zitzaion pareta denak harraskatzea, gainetik eman behar zioten pintura hobeto itsasteko. Itxuraz, jabetu zen paretak asko harraskatu gabe ere ondo itsasten zela pintura. Horri eskerrak mantendu ziren azpikoak", azaldu du Kepa Susperregi parrokoak. Ondoko argazkietan, aldareko lehengo erretaula eta gaur egungoa.



Margolanak nonahi

Bakardadearen kaperan sartzen direnek horma eta txoko guztietan topa ditzakete margolan errenazentistak. Goian, ezkerrean, kaperaren ekialdeko hormako bat: Dante Alighieriren *Jainkotiar komediaren* infernuaren irudikapena. Eskuinean, berriz, Andre Mariaren irudia, kaperako korupean, eskaileren ondoko horman.



Eskulturak ere bai

Pinturak ugariago eta ageriago dira Bakardadearen kaperan, baina eskultura lanak ere ez dira falta. Aipatutako Saez Elolaren mausoleokoez gain, gangapeko lau petxinetan ageri direnak daude, besteak beste; San Joan, San Mateo, San Lukas eta San Markos ebanjelariak irudikatzen dituzte horiek. Argazkian, horietako bi.

Koru eta guzti

Ia hogeitazko urte dira Bakardadearen kaperak birgaituta eta sortzezko askotariko aberastasuna agerian dela ikusgai dagoela, baina azpeitiar askok oraindik ez dutela ezagutzen iruditzen zaie Parrokiaren arduradunei, Soreasuko Sebastian Donearen parrokiako aldare nagusiaren ondoan dagoen altxorra bisitatzeak "merezi" duen arren. Eliza handiaren barruan eliza txiki eta aberatsa da Saez Elolaren kaperak, koru eta guzti. Korutik ateratako argazkia da ondokoa. ■■■





MIEL A. ELUSTONDO

Hogei urte (eta beti Habana)

Zeharo ahaztuta neukan informazioa, baina harrikada bat eskribitu nahian ordenagailuan lardaskan nenbilela azaldu zaizkit oharrak. Izena zuen Raul Galvan, Habanakoa edo. 57 urte zituen garai hartan, eta bere ostatuan hartu ninduen bi astez. Konfiantza hartu genion bata besteari, zaila ere ez zen, eta, hizketan hasita, alderdi komunistako kide zela esan zidan, uhartean asko bezala, eta, misiolari, baina iraultzaren, bi urte eman zituela Sirian, Golango gainetan. Oso zela ausarta, atzera begiratzen ez zuela batere. 57 urte Raulek sasoi hartan, ez zuela 77 urte baino gehiago betetzeko asmorik. Adin horretara heldu eta "kito" esateko erabakia hartuta zeukala. Aitak ere, esaterako, bere burua hil zuela. Eta kontatu zidan: larunbatetan, gurasoek azokara joateko ohitura omen zuten. Larunbat hartan, hala ere, bakarrik joateko esan omen zion Raulen aitak andreari. Emazteak etxetik irten zuen orduko, bere burua urkatu omen zuen aitak, oraingo sofistikaziorik gabe, Raulek hitzez hitz esan zidanez. "Balientea, gure aita. Berdin egingo dut neuk ere. Inori enbarazu egiten diodala iruditzen zaidan egunean,

injekzioa eskatuko dut. Aitak bezala egingo dut, neure burua hil, baina aitak ez bezala, ez dut biolentzia handirik erabiliko". Komunista zen Raul, baina dezepzionatuta zegoen, iraultzak zukutu egin zuela esaten zuen, laranjari bezalaxe, zuku guztia atera, eta, gero, harrika bota zuela. Dena eman ziola Raulek iraultzari, ezer jaso ez. Ez zuela alderdia utzi, komunista, hura uzteak kaltea ekarriko liokeelako. Hilean 347 peso ordaindu behar zizkiola Estatuari, ostatuan jendea izan, nahiz ez. "Eta nik ere zer edo zer jaso nahiko nuke hil baino lehen, berandu baino lehen. Orain arte, hezurretik jan dut asko, inork nahi duena baino gehiago, eta hemendik atzera okeletik ere jan nahiko nuke". Hogei urte dira Habanara estreinakoz joan nintzenetik. Honezkero bere buruaz beste egin du Raulek. Iritziz aldatu ez bazen, behintzat. ■

**HONEZKERO BERE
BURUAZ BESTE EGIN
DU RAULEK. IRITZIZ
ALDATU EZ BAZEN,
BEHINTZAT**



SARA AMENABAR

Ezagutu zaitez

Gaur galdera batekin nator. Galdera garrantzitsua, indar handikoa eta erantzuteko ez hain erraza. Asko gustatzen zait galderak egitea, auto ezagutza tresna bezala erabiltzen ditudalako. Goizetan esnatzen naizenean, adibidez, "zer egin dezaket gaur egun polita izateko?", galdetzen diot neure buruari. Horrela, momentuan behar dudana eta nire gorputzak eman dezakeena entzun dezaket.

Txikitatik etiketak ipintzen dizkigute, eta gure identitatea besteek esandakoaren arabera sortzen da. Etxean entzundakoa, ikastolan bizitakoa, gizarteak inposatutakoa eta lanean ikusitakoa. Horrek guztiak gaur egungo bizimodua baldintzatzen du, eta ez bagara auto ezagutzen murgiltzen, triste bizitzen edo zentzurik gabeko bizitza izaten amai dezakegu.

Nor zara? Ez esan zure izena, ezta zure adina ere. Zure lanpostua ere ez, mesedez. Zure izena ez duzu zuk aukeratu, adina ere ez. Lanpostua, berri, baldintzatuta egon daiteke, eta horrek ez zaitu definitzen. Pentsatu zure esentzian eta balioetan, zerk mugitzen zaituen eta zergatik bizi zaren. Besteek esandakoa alboratu, atsedean hartu. Ezagutu zaitez. Nor zara? ■



TiEN21ESNAOLA

ZATOZ
DENDA BERRITUA
EZAGUTZERA!



Pablo VI, 3 · Tel.: 943-08 03 55 · esnaelek@outlook.com

ikastola, zu?



2023-2024 ikasturtea

Matrikulazio epea: otsailaren 13tik 24ra

Ate irekietan izena emateko:



Etorri gu ezagutzera!

azpeitiko
ikastola

ikasberri koop.e.